

# txintxarri

# Hitzetik, ekintzara

Hiru urte eta gero, Korrika kalera itzuli da. Lasarte-Oriatik hilaren 8an igaroko da, goizean goiz, 07:11n / 2-7

**2 BETAURREKO  
PROGRESIBO  
SOILIK, 129€**

+  
ukipen-lenteak doan hilabete baterako  
+  
premium azterketa bisuala  
+  
gogobetetze-bermea



2022KO  
KANPAINA

R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   



# "Aurten tokatzen da inoizkoa izatea"

**IÑAKI DORRONSORO MAIOZ** LASARTE-ORIAKO KORRIKA ARDURADUNA

Hilaren 8an, 07:11n, helduko da 22. Korrika herrira. Hemezortzi kilometro egingo ditu bertan eta horien inguruan antolatutako guztia atontzeko ardura izan du Dorronsorok

## Maitane Aldanondo

22. Korrikak egin ditu jada bere lehen kilometroak Euskal Herrian barrena. Amurriotik (Araba) abiatu zen martxoaren 31n eta eskuz esku doa ikurriñadun lekukoa, Donostiara bidean. Hara iristeko bederatzita egun falta dira eta aurretik euskararen aldarria Lasarte-Oriara helduko da. Apirilaren 8an izango da eta ordurako dena prest egon dadin jo eta su dihardu Iñaki Dorronsoro Maiozek (Ataun, 1994) azken asteetan. Urtebete darama Munteri AEK euskaltegian irakasle lanetan eta azarotik herriko Korrika eta Korrika Kulturala antolatzeko ardura gehitu dio ohiko zereginiei. Urduritasunak atzean utzita, nekearen gainetik, ilusioa nabari zaio hizketan; baita esker ona ere herriko eragileekiko, elkarlanarengatik.

## Korrika badator, urduri al zaude?

Urduritasuna pasatu zitzaidan, horretarako denborarik ez daukat... Orain lana eta lana eta lana da. Aurki badatorrela esan duzu, baina gurea hasi zaigu; martxoaren 22an izan genuen lehen ekitaldia. Urduri egoteko garaia pasatu zaigu. **Zergatik zara Lasarte-Oriako Korrika arduraduna?**

Baten batek izan behar du... Korrika arduradun naizen lehen aldia da. Ilusio handiz ikusi nuen, zerbait oso polita eta oso potoloa antolatzeko aukera, eta norberarengandik ateratze hori handia da.

## Ilusioz hartu duzula dirudi.

Hasieran bai, gero... Damutu ez, baina hortxe-hortxe. Kar, kar. **Zertan jardun zara?**

Sentsazioa dut lana batez ere izan dela koordinazioa: AEK-ko goikoekin, gainerako Korrikekin, koordinazioa zentroekin, herrietako batzordeekin, udalarekin... Ping-pongeko pilota izatea tokatu zait.

## Herriko hamaika elkarte eta eragilerekin aritu behar izan duzu, ezagutzen al zenituen?

Ez nituen ezagutzen, baina gozatua da beti jendearekin hitz egitea, are gehiago jendea Lasarte-Orian den bezala, kolaboratzeko eta gauzak egiteko prest dagoenean. Jendea gogotsu dagoenean, ezezagun guztiak dira lagun.

## "ERANTZUNA BETI DA ONA. BAI, MAKARRA GEHIAGOREKIN BEGIETAN, BAINA KORRI EGITEKO PREST"

## Noiz hasi zenuten lanketa?

Lehen zertzeladak, azaro aldean. Egiten genuen gauza bakoitzak zerbait zirudien, 'hau egin dugu, hau ere', eta gerora konturatzen zara zein gutxi genuen eginda. Ezin zelako egin, ezin zelako aurreikusitako. Azaro bueltan hasi ginen, eta gero, esponentzialki handitzen joan da.

## Zenbat eragilek parte hartuko dute herriko Korrikan?

Eragile pila batek parte hartuko du, denek! Horietatik kilometroa erosiko dutenak beste batzuk dira. Kilometroa erosi dutenak momentuz, 31 dira. Ez ditugu oraindik guztiak saldu, hau irakurtzen duen edozeinek oraindik dei dezake. Baina laguntzeko prest dauden eragileak hogeitik gora izan dira. Handia izan da.

## Erantzuna ona izan da, beraz.

Bai, bai. Batez ere, lanerako, antolatzeko, gauzak prestatzeko jendeak zeukan borondatea... Gozatu bat, izugarria. Gero, kilometroen salmenta horretan behar dituzu eragile batzuk ekarpen ekonomiko bat egiteko prest daudenak eta hori zailagoa da. Jendeak lanerako gogoia badauka, baina, egia da, kilometroaren exigentzia beste bat dela; aukera falta zaie batzuei. Nire ustez, herriari ematen dioten



Iñaki Dorronsoro Maioz da aurten herriko Korrikaren koordinatzailea. TXINTXARRI

guztiarekin, jendeak egin duen lanarekin... Zoragarria da.

## Zenbat kilometro dira guztira?

Aurten herrian banatuta hemezortzi kilometro aldaketa dauzkagu.

## Zer ibilbide egingo du herrian?

Etorriko zaigu 07:11n Zubietatik. Oso goiz! Hipodromoko zubian sartuko zaigu, erdialdetik buelta bat egingo du eta joango da Oria aldera. Txartel hotolean buelta

emango du, berriz erdigunetik pasa eta Zabaletara igoko da, Goiegitik jaitsiko da eta Urnieta aldera joango da mendian gora eginez.

## Zer hartu duzue kontuan ibilbidea erabakitzerakoan?

Gauza pila bat: herrian zer ohitura dauden, aurreko Korriketan nondik pasatu izan den, herrian bertan nondik den polita pasatzea, badaudelako

22.korrika

HITZ EKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Geltoki kalea, 17 Lasarte-Oria | 607 62 52 33 | lasarte@aek.eus | www.munteri.blogspot.com.es

aek

Munteri AEK euskaltegia

Korrika! ika, ika, ika, Maite Estetika!

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberdinetako depilazioak
  - Solariuma
  - Manikura eta pedikura
  - Makillajea
- Beteleen tindatzea eta "lifting"-a

Zerbitzu mistoak

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45



puntu batzuk gakoaren direnak... Eman ziguten zer herritatik etorriko den eta zer herritara joango den, kontuan eduki behar izan dugu Zubietatik barrena datorrela eta Urnietarantz. Aurten zortea izan dugu saihesbidea, errepide potoloa, ez dugulako ukitu beharrik izan. **Ordua, orde, akaso, ez da onena.** Ez da ordu erraza, baina ia inoiz ez da izaten, eta jendeak beti umorez hartzen du; eta hori Lasarte-Oria nabari da. Aurten 07:11n datorkigu, baina beste urte batean goizeko 03:00etan etorri zen eta Zabaletako kideak kalera atera ziren pijama jantzita korrika egitera. Erantzuna beti da ona. Bai, makarra gehiagorekin begietan, baina korri egiteko prest.

### Gogotsu nabari al dituzu lasarteoriatarrak?

Bai. Bi urte eduki ditugu geldi samarrak eta Lasarte-Oria da herri bat oso-oso aktiboa dena. Bat-batean egin da dena... Dena antolatzen, dena beteta, jendea gauzak egiteko gogoarekin... Jendeari eman dio aitzakia bat, marko bat, gauzak atontzeko, gainera, Korrika den bezain ekitaldi potentea izanda... Utzi, utzi, herriak berak egiten du. **Eskatzen aritu beharrean, eskaini egin al dizute?**

Eskaini denek eta inkluso eskatzera joan naizenean, erantzuna askotan izan da "tardatzen ari zinteten!". Zain zegoen jendea, bazekien Korrika zetorrela eta gogotsu zegoen salto egiteko.

**Korrika beraz gain, Korrika Kulturala ere antolatu behar izan duzu. Zer nabarmenduko zenuke egitarautik?** Lehenik, jendearen parte hartzea. Beti honetara bueltatzen ari naiz... Batzordera etorri da klase guztietako jendea parte hartzera,

## "ZAIN ZEGOEN JENDEA, BAZEKIEN KORRIKA ZETORRELA ETA GOGOTSU ZEGOEN SALTO EGITEKO"

antolatze gogoarekin, bakoitzak ahal duena emateko gogoarekin, batzuek zerbait konkretua, beste batzuek eskulana, beste batzuek ideiak eman dituzte, laguntza... Azpimarratuko nituzke martxoaren 22an egindako mahai ingurua, oso-oso baliotsua izan zena. Egitekoak ginen garagardo dastaketa, Bogak eta Saltusek badute tradizio bat euskararen eta hainbat ekimenen alde egin duten gauzekin eta haiek herrira ekartzea poz handia da. Nabarmentzekoa da ere Aranzadirekin antolatu nahi diren ekimenak, Joxe Mari Agirretxe eta pailazoaren bidez. Ikastetxeetara ekarriko ditugu Txoribox ekimena egitera. Hori lotu nahi izan dugu herrietan galtzen ari den biodibertsitatearekin, hizkuntzen biodibertsitatearekin. Oso polita izango da. Horrez gain, betiko gala eta Korrika Eguna. **Esan duzunaren harira ez dirudi oso beharrezkoa denik, baina, hala ere, anima itzazu lasarteoriatarrak Korrikan parte hartzera.** Lasarteoriatarrei esango diet eurentzako bat gehiago dela. Urtero antolatzen dute, urtero izugarria da. Eta, batez ere, euren dela, euren egiten dutela, herriarentzat izaten dela. Eta goza dezatela euren buruaz, latza egin dute eta merezi dute. Gainera, aurten omenduak bertakoak izanda... Aurten tokatzen da inoizkoa izatea.

## Hiru urte eta gero, bueltan



2019ko Korrika, azkena. TXINTXARRI

### 2019an, 'Klika'

Pandemia aurreko azken Korrika 2019ko apirilaren 12an pasatu zen herritik, bazkalostean.



2017ko Korrika, gauez. TXINTXARRI

### Euria ez zen oztopo izan

XX. Korrika gauez iritsi zen herrira, eta eguraldia oso kaxkara izanagatik, inor ez zen etxean geratu.



Jalguneakoak, sudurgorri. TXINTXARRI

### 'Euskahalduntzen'

2015eko Korrika ere arratsaldean igaro zen herritik. 'Euskahaldun' lelopean, ehunka lasarteoriatarrek egin zuten lasterka.

22.korrika *æk*  
**KULTURALA**  
HITZ EKIN

**Apirilaren 4tik 7ra**  
Antonio Mercero gunean  
**17:00etatik 20:00etara**  
Landaberri ikastetxeko guraso elkarteak 'Korrika umeen begietatik' erakusketa antolatu du

**Apirilaren 8an**  
**06:30** txistulariak  
**07:11** iritsiko da 22. Korrika herrira, Zubietatik.  
**08:26** joango da Urnietara.  
**11:00** Korrika Txikia herrian.  
**13:00** Korrika Txikiko koreografia Okendo plazan.  
**13:30** makarroi jana ikasleentzat, Okendon. Ondoren, bingo musikatua.  
**17:00** euskal jolasak Ostadar SKTren eskutik.  
**18:00** barraren irekiera, gazte mugimenduaren eskutik, Okendon.  
**19:00** jaialdia egingo dute Earra bertso eskolakoek Jalgi kafe antzokian.  
**19:30** batu-poteoa, Dinbi Banda taldeak gidatuta.  
**20:30** afari merienda Okendo plazan.

**Maiatzaren 27an**  
**19:00** kultur etxean 'Dendaostekoak' irakurraldi bertsotua.

korrika.eus  
📍📍📍

**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

**DISEINU EDITORIALA**

**aldizkariak**  
IRUDI KORPORATIBOA

**kartelak**  
ESKU-ORRIAK

**katalogoak**  
AGENDAK EGUTEGIAK


koadernoak  
PAPELERIA  
liburuak

22.korrika *æk*  
HITZ EKIN

**antza**

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA






**Carrefour express**  
Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

Badator KORRIKA!  
HITZEKIN





# Korrika txikia

- 9 1996.km: Aterpea
- 10 1997.km: Ikastetxeetako Guraso elkarteak
- 11 1998.km: Zabaleta Auzolan
- 12 1999.km: Sorgin Jaiak/aSUnak/Ernai
- 13 2000.km: EH Bildu
- 14 2001.km: LAB
- 15 2002.km: Erketz EDT
- 16 2003.km: Ostadar SKT
- 17 2004.km: Lasarte-Oria Trail
- 18 2005.km:

*aek*  
**22.korrika**

**Amurriotik Donostiara**  
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

\* Apirilaren 8ra bitartean aldaketak egon daitezke kilometroen banaketan

## 22. Korrika Lasarte-Oriatik igaroko da

Apirilaren 8an, 22. Korrikak Lasarte-Oria zeharkatuko du. Hipodromoko zubian lekukoa hartuko dute lasarteoriatarrek, 07:11n. Ostera, herriko eragile, elkarte eta erakundeek hemezortzi kilometro burutuko dituzte Urnietako muga den Kostegi agroturismora arte. Aurten lehenengoz, Zabaleta auzoan bira txikia egingo du euskararen aldeko lasterketak.

22. Korrika igaro eta ordu batzuetara etxeko txiki eta gazteen txanda izango da. Korrika Txikiak ere berrikuntzak dakartza; Ibilbidea luzeagoa izango da eta Okendo plazan emango diote hasiera Oriarte BHIko gazteek. Goizeko hamaiketan hasi eta ikastetxe desberdinetako korrikalari txikiak herriko kaleak zeharkatuko dituzte lekukoa batetik bestera eramanez. Okendo plazara berriro iristean guztiak bildu eta amaiera ederra emango diote euskararen jaiari.





# "Inoiz amestu gabeko ametsa bete zaigu; aitortza berezia da"

**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS 22. KORRIKAKO OMENDUAK**

Lasarte-Oriako pailazoak omendu ditu aurtengo 22. Korrikak. 35 urteko ibilbidea osatu dute sudurgorriek, eta hain zuzen ere urte horietan erakutsitako konpromisoa txalotu du AEK-k. Aitortzaren inguruan hitz egin dute TXINTXARRI-rekin

## Maddi Zaldúa

Sudur gorririk gabe, baina berezko maitasunez eta umorez jaso naute Porrotxek eta Marimototsek – Pirritxek ezin izan du bertaratu– Oria auzoan duten bulegoan. Karakterizaziorik ez, baina zalantza izan dut hainbatetan pailazoak edo Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez ote ziren hizketan ari zirenak. Ahotsak pailazoena ziren, eta hala behar zuten izan, beraiek baitira aurtengo 22. Korrikaren omenduak –horren gainean galdezka joan natzaie–, eta, hortaz, elkarrizketako galderak erantzun behar zituztenak. Gustura aritu gara solas eta solas, kantuan tarteka ere bai, hala erantzun baitituzte, noizbehinka, galderak.

*Mila-pila eskerrik asko!* atearik, guretzat beti zabalik izateagatik. **22. Korrikako omenduak zarete. Nola jaso duzue aitortza hori?**

**Pailazoak:** Guretzako oso handia da, emozio handiz bizi dugu. Jaso ditugun aitortza guztiak izan dira ederrak, baina berezia da hau, gure euskalduntzea erakunde horren eskutik ere egin dugulako. Betiko eramango dugu gurekin omenaldi hau, gure irri, kantu eta dantza guztietan. Amesten ez genuen ametsa bete zaigu; ez genuen pentsatu inoiz aitortza hau jasoko genuenik.

Aintzatespena guri egiten zaigu, baina gu bezala herrigintzan ari diren eragile eta herri elkarte eta kultura talde zein sortzaile askorena ere bada. Gure lana sortzeko kolaboratzaile sare zabala dugu eta ezin gara horiekin



Pirritx, Marimotots eta Porrotx, Korrikaren lekukoa eskuetan dutela. AMAIA ZABALO

ahaztu: musikariak, abeslariak, bertsolariak, idazleak, ilustratzaileak eta abar.

**Ez da AEK-k aintzat hartzen zaituzteten lehen aldia.**

**Pailazoak:** Hamaseigarren Korrikako mezua guk idatzi genuen. Gasteizen, Andra Maria Zuriaren plazan amaitu zen

Korrika, azken kilometroan lekukoa hartu eta idatzitakoa irakurri genuen. Oso gogoan ditugu une haiek ere; jendez lepo zegoen plaza. Oso hunkigarria izan zen.

**Zuen euskalduntze prozesua, besteak beste AEKren eskutik izan dela aipatu duzue.**

**Marimotots:** Euskaldun berria naiz. Euskara ikasteko lehen pausoak AEKrekin eman nituen, lehenengo ametsa euskaraz izatea lortu nuen arte. Gaztelaniaz ikasi nuen eta institutura heldu nintzanean hasi nintzen harremantzen euskaldunekin; sekulako inbidia sentitzen nuen euskaraz hitz egiten entzuten nituenean. Belarria jarri eta ez nuen ezer ulertzen; lotsa sentitzen nuen euskaraz hitz egiten zidatenei ezer ulertzen ez nienean. Horregatik erabaki nuen euskara ikastea eta Errigoitira, barnetegira joan nintzen.

Esperientzia hari esker lortu nuen euskara ulertzea. Handik Lasarte-Oriara itzuli nintzen eta kuadrillan ohitura aldaketa bat egin genuen. Euskaraz hitz egiten zuten lagunek ordura arte gaztelaniaz egiten zuten nirekin, baina handik aurrera lortu genuen niri euskaraz egitea. AEKn ere jarraitu nuen... zortea izan nuen inguruan euskaldunak izateaz. Prozesu hartan pailazoekin ere topo egin nuen eta beraiekin trebatu nintzen euskaraz. Euskara zen taldearen oinarri sendoetako bat eta izugarri eskertzen diet emandako laguntza guztia.

Euskararekiko nire ibilbidea ikusita, AEKren aldetik aitortza hau jasotzea sekulako saria izan da niretzako, handia, inoiz jaso dudana potoloena.

**Porrotx:** Mertxe AEKn euskara hutsetik ikasten hasi zen bezala, ni alfabetatu egin nintzen bertan. Institutu garaian hainbat galdera egin nizkion nire buruari: nor naiz, non bizi naiz, nola bizi nahi dut... eta horiei erantzunez erabaki

nuen euskaraz bizi nahi nuela. Zorionsu sentitzen naiz euskaraz bizi naizelako.

**Aurten AEK-k zuen ibilbidea aitortu du, baina zuek ere eskaini dizkiozue hainbat lan Korrikari. Miresten duzue elkar.**

**Pailazoak:** Bai. Egin genuen *Tipi-tapa, Korrika* diskoa eta urtebetez ibili ginen, herriz herri ikuskizun horrekin. *Txispun Korrika* kanta ere argitaratu genuen, korrika txikiari, haurrei zuzenduta, uste dugulako beraientzat ere sekulako egitasmoa dela. Eskola guztietan lantzen dute Korrika, apaingarriak prestatzen dituzte, ateratzen dira korrika egitera... Guretzat AEK eta Korrika bereziak direlako egin genituen lan horiek, haiek egiten duten lana balioetsi nahi genuelako.

**35 urte igaro dira pailazo taldea sortu zenetik. Euskaraz egin duzue zuen ibilbide guztia.**

**Pailazoak:** Sudurgorritik euskara, alaitasuna eta balioak zabaltzea eta transmititzea izan da helburua. Gu hasi ginen garaian bazeuden pailazogintzan emanaldi elebidunak egiten zituzten taldeak, baina euskaratik sortu zen gurea eta hizkuntza horri zor zaio.

Inoiz eskatu izan dizkigute emanaldiak gaztelaniaz egiteko, baina guk ezetz erantzun izan dugu beti. Esaten genien haurrek ulertzen zutela euskara eta helduei begietatik sartzen zitzaizela ikuskizuna, lasai egoteko, ulertuko zutela.

Hasieratik euskaraz aritzea izan da gure apustua eta gaur egun inork ez digu galdetu ere egiten gaztelaniaz egin dezakegun; inori ez zaio horrelakorik bururatu ere egiten. Barneratu da Pirritx, Porrotx eta Marimotots euskaraz direla. Hori da zerbait natural bihurtzea, eta hain zuzen ere gure hizkuntzak hori behar du. Hori lortu behar dugu euskararentzat, egoera bat non gutxienez denok ulertzen dugun gure hizkuntza, horrek bermatuko baitigu denoi euskaraz egin ahal izatea.

**Hain zuzen ere zuen 35 urteko ibilbidean erakutsitako "konpromisoagatik eta ekinagatik" omendu zaituztete. Ez da ibilbide makala orain arte egin duzuen.**

**Porrotx:** 1987. urtean jaio zen taldea eta lehenagotik Olentzeroren etorrera prestatzen ere aritu ginen. Herria nola aldatu den orduz geroztik... Ikusten dugu euskararen ezagutza areagotu egin dela, bikoiztu. Erabileran ere aurrerapausoak eman dira eta



herrigintzan oso aberatsa da gaur egungo Lasarte-Oria; euskaraz aritzeko aukera asko dago. Egungo gure herriak ez du duela 35 urtekoarekin zerikusirik. **Aldatu da orduan Lasarte-Oriako hizkuntza errealitatea ordutik hona. Marimotots:** Aldatu da, bai. Nire familian, adibidez, atzetik datozen belaunaldiak, nire ilobak euskaldunak dira, ikastolan ikasi dute. Herriko seme-alabak euskaldundu dira, nahiz eta gabezia handi bat sumatzen dudana: askoren euskara erabilera eskola eremura mugatzen da soilik, handik kanpo gaztelania asko hitz egiten dute.

**Porrotx:** Lasarte-Orian sortu zen pailazo taldea, populazioz eta urbanistikoki asko hazi zen herri batean. Eraldaketa handia jaso zuen oso denbora gutxian eta hizkuntzari dagokionez, euskara bigarren mailan geratu zen. Haurren %80ak A ereduaren ikasten zuten, ikastolakoek soilik egiten zuten B edo D ereduaren. A ereduko haurrentzat ez zen existitzen euskara etxean, ezta kalean ere eta justu-justu eskolan, astean bi orduz. Hortik sortu zen gure taldea, haur horiei euskara

## "EUSKARAZ HITZ EGITEN NORBERA DA ONENA; EGITEN DEN EUSKARA DA EDERRENA"

alaitasunez eskaintzeko tresna bat bezala, noski Lasarte-Oriara begira.

Gaur egun ez gaude bi komunitate bereizita orduan geunden bezala; kulturalki oso ezberdinak ziren eta geografikoki herrian ere banatuta zeuden; euskara bigarren mailako hizkuntza zen. Beste garai batzuk bizi ditugu gaur, baina horrek ez du esan nahi erronka berriak ez ditugunik. Garai hartako migratzaileak batez ere Espainiatik etortzen ziren. Bi komunitate horien arteko harresia bota genuen, esan genezake Lasarte-Oria kolore asko dituen herri bat dela eta denak elkarrekin oso giro onean harremantzen garela. Egun, ordea, 70 herrialde baino gehiagotatik etorritako pertsonak ere bizi dira gurekin. Horiekin dugu erronka orain.

## "EUSKARA, ALAITASUNA ETA BALIOAK TRANSMITITZEA IZAN DA BETI GURE XEDEA"

**Eredugarri zarete Euskal Herriko haurren hizkuntza erreferentzialtasunean.**

**Pailazoak:** Gure hizkuntza neurri batean menpekoa denez, aurrera ateratzea nahi badugu, kontzientziatik egin behar dugu. Zoritxarrez zerbait naturala beharko luke, baina gaur-gaurkoz ez da hala. Horregatik, oso garrantzitsua da kontzientziak astintzea; goxo, baina astintzea.

Guk sentitzen dugu bide horretan laguntzen dugula, batez ere euskararekiko maitasun hori senti dezaten. Bihotzetik, alaitasunetik sentitzen dugu gure hizkuntza eta transmisioa ere hala egiten dugu. Eta hain zuzen ere horregatik iristen gara haurrengana iristen garen moduan, ideologia, kolore eta pentsatzeko modu guztietako pertsona eta familiengana. Guk

ez dugu sekula begiratu nor genuen aurrean. Egiten duguna gozatuz egiten dugu eta hizkuntzarekiko ere transmititu nahi dugu hori: egin dezatela euskaraz, gozatuz, egiten den euskara baita ederrena.

Anarik [Ana Rita Alberdi abeslaria] behin esan zigun beste sortzaileen kantak abestea bereak propioak kantatzea baino gehiago kostatzen zaiola, baina bereak kantatzeko munduan ez dagoela bera baino hoberik. Ez ditugu sekula ahaztu hitz horiek, eta defendatzen dugu gure kantak kantatzeko onenak gu garen bezala, euskara hitz egiten norbera dela onena.

**Egin dezagun hilabete batzuk atzera, omenaldi egunera. Ez zen edozein agertokitan egin, Tolosan, Gure Zirkuaeren karpan baizik.**

**Pailazoak:** Oso berezia izan da Gure Zirkuaeren egitea. Iker Galartzarekin [Gure Zirkuaeren sortzaile eta aktorea] aspaldi-aspaldiko harremana dugu. Mokolo [Iñaki Odriozola] bere taldekide izandakoa hil zenean, omenaldi bat egin zen Leidorren eta bertan elkartu ginen Euskal Herriko pailazoak. Mirensten dugu Galartza. Iruditzen zaigu Gure Zirkua ekimena bera,

karpa erostea eta proiektua martxan jartzea oso erronka zaila dela, oso apustu eroa eta alde horretatik miresten dugu egiten ari diren ahalegina.

Bat egin genuen omenaldian eta egun horretan, gure ibilbidean kide eta lagun izan direnak eta gaur egun ere izaten jarraitzen dutenak gonbidatu genituen. Eserlekuetatik agertokira jaitsi, eta gurekin dantzan egin zuten, oso polita izan zen.

**Hitzekin da aurtengo Korrikaren leloa, eta horrek ere keinu egiten dio pailazo taldeari.**

**Pailazoak:** Sekulako sorpresa izan da hori ere. Nerea Urbizuk zuzendu du abestia eta letra Sustrai Colina bertsolariarena da eta haiek, lan horren sorkuntzan egiten hasterako bazekiten gu izango ginela omenduak. Horrela, *Sentitu, pentsatu, ekin* gure esaldi famatuari keinu eginez osatu dute *Hitzekin* leloa.

**Donostian amaituko da aurten Korrika eta bertan izango zarte zuek ere.**

**Pailazoak:** Hantxe izango gara, Korrika amaitu ostean emanaldia egingo dugu Alderdi Ederren. Han ikusiko dugu elkar!



# LUIS CAR

## autobusak

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza, 1 LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • [luiscarbus62@hotmail.com](mailto:luiscarbus62@hotmail.com)





Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA

Urte berezia da aurtengoa euskaltzaleentzat. Izan ere, pandemiak utzitako biharamunetik ihesi, euskal hiztun komunitatean egundoko garrantzia hartu duten bi hitzordu izango dira, aurki: lehena, udaberrian, kale-kantoiaren buelta emanda, hemen da-eta 22. Korrika. Bestalde, urte amaiera aldean ere izango da mihiak zorrozteko aitzakiarik, indartsu bezain gogoz baitator Euskaraldia: azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte gauzatuko da, hamabost egunez, "Hitzez ekiteko garaia" lelopean.

Orain lau udazken ekin zion bideari hizkuntza-ohituretan eragitea xede duen ariketa sozial masiboak. Hari horri tiraka, eta denborak ematen duen eskarmentuaz, aurreko bi edizioetako irakaspenetatik abiatu dira etorkizunera begirako erronkak finkatzeko. Euskaraldiko Gipuzkoako koordinatzaile orokorra da Sara Saizar, eta ezinbestekotzat jo du hitzaren eta ekintzaren arteko uztarketa, euskararen normalizaziorako bidean: "Herriarrek nahiz entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urratsak ematea da Euskaraldiaren lan-jardunaren egitekorik behinena".

Hori horrela, aurten, "jauzi kualitatibo bat emateko apustua" egin du antolakuntzak, Saizarrek adierazi lez, "ariketaren berezko funtsari garrantzia emateko". Horrez gain, parte-hartzea hedatu nahi dute, hots, Gipuzkoako koordinatzailearen esanetan, sektore berrietara iristea da helburua: "Ariketa ikusgarria egin behar dugu, eta, horretarako, kaleak hartu nahi ditugu, bai eta txapen presentzia areagotu ere, komunitate izaera egonkortzeko". 2020ko edizioaren ostean, Siadeco elkarteak egindako ikerketaren arabera, txaparen eragina "ukaezina" da: "Ingurukoek eurekin euskaraz egin dezaketela adierazteko erabiltzen du gehienagoak. Nafarroan altuagoa da portzentajea, eta adierazi dezake identifikatzeko behar handiagoa dagoela bertan, euskal komunitatea sortzearena".

Lorpenetan ipini dute aurten begirada, eta, horretarako, erronka pertsonalak hartzeko gonbitea luzatzen diete antolatzaileek ahobiziei nahiz belarriprestei. "Konpromisoarekin lotura zuzena duen hitzordua da", azaldu du Saizarrek. Amua Euskaraldiak



Euskaraldiaren lehen edizioa gogoz hartu zen Urnietan. AIURRI

# Euskarak kaleak har ditzan

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte izango da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Hamabost egun hartuko ditu ariketa sozialak, "hitzez ekiteko garaia" dela aldarrikatzeko

bota arren, "nork bere erronkari eutsi behar dio, ariketa soziala unean uneko premietara egokitu ahal izateko". Horrez gain, ez ditu aipatu gabe utzi koordinatzaileak lorpen kolektiboak: "Ahalegin masibo batek fruituak ematen

**"NORK BERE  
ERRONKARI EUTSI  
BEHAR DIO, ETA UNEAN  
UNEKO PREMIETARA  
EGOKITU"**

dituela antzeman behar dute parte-hartzaileek".

## Hirugarrena, erraztasunekin

"Hirugarren edizioa bigarrenaren jarraipen" gisatzat dute antolatzaileek eta aurten ere bi roletan aritzeko aukera izango dute 16 urtetik gorako euskal herritarrek: ahobizi edo belarriprest. Ariketa eraginkorra egite aldera, izen-ematea sinplifikatu dute. Hala, soilik, parte-hartzaile berriek eman beharko dute izena. Alegia, aurreko edizioetan ariketa egin

duten herritarrek, beren parte-hartzea berrestearrekin nahikoa izango da.

Horrez gain, ariguneez ere garrantzia izango dute ariketak irauten duen hamabostaldian, entitateek ere euskararen aldeko konpromisoa har dezaten. Berrikuntza moduan, ez da bereiziko kanpo- edo barne-arigunerik; guztiak multzo berean sailkatuko dira.

## Atzera begira jarrita

Norbanakoen nahiz entitateen harremanetan oinarritutako

ariketa da Euskaraldia; alabaina, jendarteko makina bat esparrutan bezala, horretan ere pairatu ziren pandemiaren albo-kalteak 2020. urteko edizioan: nola egin ariketa soziala, hartu-emanak galarazi ziren sasoiaren?

Ipar Euskal Herrian, esaterako, herritarrek etxean sartuta gauzatu zen Euskaraldia. EAEn, bestalde, itxita egon ziren tabernak eta askotariko ariguneez. Egoeraz jakitun, pozik agertu zen antolakuntza bigarren edizioaren emaitza onekin, Saizarren aburuz: "Baldintza horietan egin izate hutsa bada jada arrakasta. Euskara alboratu zen pandemiaren eraginez, eta gure hizkuntza mahaigaineratzeko eta erdigunean ipintzeko beta eman zuen Euskaraldiak". Siadeco elkarteak egindako ikerketaren arabera, orotara, 177.575 lagunek hartu zuten parte 2020ko Euskaraldian, eta izena eman zuten entitateek, guztira, 24.363 arigune sortu zituzten.

Halaber, are modu ageriagoan utzi zuen osasun-larrialdiak herri-batzordeen garrantzia, besteak beste, beren egitekoa kalera ateratzea delako, bai izen-ematean, bai tailerren bidezko pedagogia sozial-lanetan. Batzordeak Euskaraldiaren "bihotza" direlakoan da Saizar: "Zazpi probintzietan egiten da ariketa, baina, tokian toki, nork bere txokora egokituta gauzatzen da, eta horretarako dira batzordeak, beraiek ipintzen baitute martxan ariketa; ezinbestekoak dira Euskaraldiak aurrera egin dezan". Hala, azkar baino lehen hasiko dira Buruntzaldea eskualdeko eragileak lanean, urte amaierara begirako prestaketa-lanetan.

Horregatik guztiagatik, "proposamen aktiboa" da Saizarrentzat Euskaraldia, herritarrek martxan ipintzen dituelako: "Kontzientzia hartzetik asko duen ariketa da, eta, erronkak iraun bitartean, gora egin du euskararen erabilerak, bai eta hamabostaldia bukatuta ere". Horrez gain, zer pentsatua ematen du hitzorduak, eta aurretiko zein ondorengo erantzukizuna eskatzen dio parte-hartzaileari, euskararekin duen harremanaz hausnartzeko, bai eta horri bultzada emateko ere. Izurriteak izurrite, euskara indarberritu dadin, kaleak har ditzan.



# BADATOR EUSKARALDIA!

**2022ko azaroaren 18tik  
abenduarien 2ra ilusioz,  
arduraz, gogoz eta emozioz  
ekingo diogu ariketari.**

**Kaleak beteko ditugu berriz ere,  
euskaraz hitz egitea inoiz baino  
errazago izan dadin.**

**Belarriprestok eta ahobiziok aukera  
berriak izan ditzagun lan egingo dugu  
elkarrekin, auzoz auzo, herriz herri  
eta arigunez arigune.**

**Hitzez ekiteko garaia heldu da**



**EUSKARALDIA**



# Juan XXIII plazako parkea berrituko dute

Lasarte-Oriako gazteei haien aisialdirako "jarduera ludiko eta hezitzaile bat" emateko asmoz, udalak ikastaro sorta bat prestatu du ekain erdialdera arte. Jarduerak Gaztelekuan egingo dituzte, eta izena emateko epea irekita dago, aurrez aurre edo telematikoki egin daiteke

## Txintxarri

Pandemiagatik atzeratu behar izan zituen lanen lizitazioak aurkezten jarraitzen du udalak. Azkena, herriko jolastoki ugari aldaketak egiteko: esate baterako, Juan XXIII plazako parkea "erabat" berrituko du. Obrak Montajes Garra enpresari adjudikatu dizkio, 88.914 eurotan, Agustin Valdivia alkateak ezagutarazi duenez. "Hiru pisuko gaztelu bat jarriko dugu, zabu bat eta kulunka batzuk". Zerbitzu Publikoetako buru David Mateosek aurreratu du kontratua sinatzean hasiko direla lanak, eta espero dutela bizpahiru hilabete irautea, betiere prozesuan ezustekorik ez badago.

Hori izango da kontratu honetan jasotako aldatzeko azpimarragarriena, baina ez bakarria, Mateosek zehaztu duenez: Tximistarretako jolastokiko zenbait zati berritzea; Bitarte parkeko lurra aldatzea; Urko plazako lurra eta zabuetako bat berritzea; Txarteleko txirrista aldatzea; Arranbideko zabua eta lurreko zenbait gune eraberritzea; Pinutegiko langa zaharra kendu eta beste bat jartzea; eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxean zabu berri bat jartzea.

Alkateak adierazi du lan sorta horretarako dirua 2021eko aurrekontuetakoa dela, eta



Mateos eta Valdivia, Juan XXIII plazako parkean. TXINTXARRI

2022koetan beste partida bat sartuko dutela herriko parkeetan moldaketak eta berritze lanak egiten jarraitzeko.

## Ikastaroak Gaztelekuan

Lasarte-Oriako gazteei "aisialdirako aukera ludiko eta hezitzaile bat eskaintzeko asmoz", udalak hainbat ikastaroz osatutako eskaintza prestatu du. Jarduerak, batez ere, Gaztelekuan bertan egingo dituzte. Horietako zenbait egin ahal izateko, interesa dutenek ordaindu egin beharko dute, eta beste batzuetan aritzeko, berriz, ez. Prezioa duen ikastaroa artea eta emozioei buruzkoa da, eta

inskribatzeko azken eguna hilaren 25a izango da, astelehena. Apuntatzen direnen artean patinete elektriko bat zozkatuko du udalak. Eskaintza osoa TXINTXARRI-ren atari digitalean kontsulta dezakezue.

Aipatu ikastaroetan aurrez aurre izena emateko, Manuel Lekuona Kultur Etxera joan daitezke interesdunak, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00era edo 17:00etatik 20:00etara, edo bestela, Gaztelekura, asteartetik larunbatera, 12:00etatik 20:30era. Bestela, 943 37 61 81 telefonora dei edo udalaren webgunea ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)) erabil dezakete.

## Manuel Lekuona Kultur Etxera itzuliko da Udaltop, maiatzean

Eskola eta nerabeei zuzendutako hizkuntza politika izango dituzte hizpide; izen ematea irekita dago

## Txintxarri

*Eskolak bakarrik ezin badu... Zer eta nola egin behar dugu udalerrian hobeto 16 urte bitartekoentzat hizkuntza politika egokia antolatzeko?* izenburupean, udaletako Euskara zerbitzuen aurtengo topaketan "helburu nagusia" izango da adin tarte horretako neska-mutilentzat "hizkuntza politika egokia antolatzeko jarraibideak" ematea. Izena emateko epea maiatzaren 3ra arte egongo da irekita, eta aurtengo aldia aurrez aurre (Manuel Lekuona Kultur Etxean,

maiatzaren 12an eta 13an) zein sarean jarraitu ahalko dute partaideek. Antolatzaileek zehaztu dutenez, egitarauak "lau ardatz nagusi" izango ditu: ikuspegi orokorra, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak eta talde lana.

Aurrez aurreko edo sareko formatua aukeratu beharko dute parte hartu nahi dutenek, eta 65 edo 15 euro ordaindu, hurrenez hurren. Lehen aukerak otorduak eta materiala biltzen ditu; bigarrenak, esteka. Maiatzaren 9an jasoko dute.

## Terrazen ordenantzari alegazioak jartzeko epea ireki du udalak

Lasarte-Oriako udal korporazioak martxoko ohiko bilkuran onartu zuen ostalaritzako jardueren osagarri diren terrazak eta mahaitxoak jartzea arautzen duen ordenantzaren dokumentua, eta udalak jakinarazi du alegazioak jartzeko epea zabaldu duela, maiatzaren 16ra arte, astelehenarekin. "Denbora tarte horretan erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ez badu inork, ulertuko dugu oraingoz behin-behinekoa den erabakia behin betikoa izango dela".

Udalaren webgunean kontsulta daiteke ordenantzaren txostena, esteka honetan: <https://www.lasarte-oria.eus/eu/-/exposicion-publica-ordenanza-de-terrazas>.

## Errefuxiatu familiak iristen hasi dira Lasarte-Oriara

Gerrako biktima ukrainarrak laguntzen ari diren boluntario taldeak jakinarazi duenez, hasi dira errefuxiatu familiak herrira iristen, eta haietako produktu sortak eramateko eskatu diete lasarteoriatarrei, Ludotekara, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara: kilo bat arroz, pasta, lekale edo azukre; litro bat olio; gailleta zorro bat; kafea, tea edo kakaoa; nahiz hiru kontserba lata.

Ohar bidez, eskerrak eman dizkiete aste hauetan zehar era batera edo bestera lagundu duten herritarrei, eta horretan jarraitzea animatu. "Materialez betetako beste furgoneta bat bidali dugu berriki, mila esker denoi!".

## Kartzelak eta erreskateek itxi dute euskal dokumentalen zikloa

Lander Garro eta Javi Julio zuzendariak gonbidatu ditu Okendo Zinema Taldeak herritarrekin hitz egitera

## Txintxarri

*Tipularen sehaska kanta* eta *Aita Mari* dokumentalek itxi dute Okendo Zinema Taldeak antolatutako zikloa. Bost emanaldik osatu dute egitaraua, eta herritar ugari jakin-mina

piztu dute oso bestelako errealitatei buruzko lanek.

Javi Julio fotokazetariak zuzendutako *Aita Mari* izan zen azkena, erreskate barku bilakatutako atunontziaren eraldaketa prozesua eta itsasoan

egindako lehen erreskatea lanaren zati bat jasotzen du filmak.

Dokumentalek errealitatearekin lotura izaten dute, memoria historikoarekin, bertako gertakariekin... *Tipularen sehaska kanta* lanak kartzela eta gaixotasuna ditu ardatz, bertan edo haren inguruan dauden pertsonen lekukotzetan oinarrituta. Ia ordu eta erdiko ikus entzunekoak, tipulek bezala, azal desberdinak ditu: estetikoak, inguru politikoa, humanoak, profesionalak... Ahots ugari bildu ditu Lander Garrok.



Lander Garro, OZTko kide Pablo Barrioren galdera entzuten. TXINTXARRI



# Antzerkiaren eguna ospatu du Kukukak

Martxoko azken igandea izan da Antzerkiaren Nazioarteko Eguna. Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak, ordea, egun bat lehenago ospatzea erabaki du, diziplina hori ardatz duten zenbait jarduerekin. Herritar ugari parte hartu dute ekimenetan

## Maitane Aidanondo

Sasoetako gimnasioan hasi zuten prestatutako ekimen zerrenda. Familientzako tailerra egin zuten bertan. 70 bat lagun elkartu ziren ordu eta erdiz ondo pasatzeko gogoz. Zerrendan izena emanda zeudela baieztatu ondoren, sartzen joan ziren haur eta helduak. Hasteko, nola ez, beroketa ariketak egin zituzten: luzapenak, saltoak, oihiak. Gero, aretoan barreNa ibili ziren eta Kukukako kide Erik Arzallusek esatean, salto egin, lurra ukitu, ezkerre edo eskuinera mugitu ziren. Ondoren, beste jolas batzuk egin zituzten.

Lurrean eserita, Kukukako beste irakasle batek Martxelen istorioa kontatu zien. Haurra zenetik itsasgizona izan nahi zuten Martxelek, eta gurasoek kostara eraman behar izaten zuten itsasoa ikus zezan. Heldua zela, egia bilakatu zuten ametsa eta marinela egin zen. Itsas zabalean bidaia doala, ordea,

piratekin topo egingo du. Lau talde osatu eta bakoitzari jarraipen bat proposatu zioten, bukaera bat ere irudika zezan. Emandako zapi, jantzi ileorde, maskara eta gainerakoekin, pertsonaien azalean jarri ziren partaideak eta irudimena martxan jarri zuten.

## Pirata Garrapata

Tarte batez lanketa egin ondoren, prestatutako amaierak erakutsi zizkieten elkarri. Jarraian, Okendora joan ziren guztiak, piratak protagonista zituen beste ipuin bat entzuteratuta: Patata Tropikala taldearen *Pirata Garrapata*ren abenturak ikuskizuna, hain zuzen. Magia,

## 'MAGMA MIA!' BAKARRIZKETA BERRIA AURKEZTU DU BEA EGIZABAL AKTOREAK

antzerkia eta txotxongiloak tartekatuz, kutsadurak naturan duen eraginaz hitz egin zuten. Pirata Garrapatak bidai izugarriak egin ditu mundu osoan barrena eta haietan hainbat abentura bizi ditu: Indian, txirula magikoa aurkitu zuen; Australian, poltsa magikoa; eta Errusian, era guztietako edalontzietan sartzea lortu zuen. Okendon batutako haurren laguntzarekin "kriskitin, kraskitin, arrosa, krabelin" hitz magikoak esanda, apurtutako mapa osatu eta abentura berezi batean murgildu zituen bertaratutakoak.

## Bakarrizketa berria

Haurrak eta familiak protagonista izan ziren goizeko ekimenetan, arratsaldean, berriz, Bea Egizabalek bere bakarrizketa berria aurkeztu zuen Jalgin: *Magma mia!*. Umoretik eta feminismotik heldu dio emakume izateari. Berak dituen zenbait



Haurrek zein gurasoek ederki pasa zuten familientzako antzerki tailerrean. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, 'Pirata Garrapata'ren abenturak' eta Bea Egizabal. TXINTXARRI



ezaugarri berezkoak diren edo sistema heteropatriarkalaren eragina diren aztertu du. Ziurgabetasuna, autoestimu urria, bere gorputzarekin konforme ez egotea... Beteta zegoen tabernan zeudenei barre eginarazi zien, baina, ziur,

gogoetaren bat edo beste ere piztu zela.

Antzerkiaren Eguna atzean utzita, hilaren 29an izango den Dantzaren Nazioarteko Eguna prestatzen hasi da Kukuka. Beste eragile batzuekin batera, 19:00etan ariko da, Okendon.

## Emakumeak eta kartzela izan dituzte mintzagai martxoan

Sarek kontzentrazioa deitu du hilaren 7an, Osasunaren Nazioarteko Egunean, anbulategi parean, 19:00etan

## Txintxarri

Martxoan emakumezkoek espetxean bizi duten egoera izan du hizpide Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak, eta horren gainean arreta pizteko, ekintza pare bat egin ditu: *Emakumea\* eta kartzela* hitzaldia, aSUNak neska\* gazteen talde feministarekin batera antolatutakoa, eta Azken Ostirala.

Arrazoi politikoen kartzelan egon diren lau emakumeren testigantzak entzun zituzten Xirimiri elkartearen, martxoaren 24an. Olatz Altuna, Oihane

Baquedano, Maite Aranalde eta Uxua Olalla gonbidatu zituzten; azken horrek ezin izan zuen hitzordura bertaratu, eta audio bidez bidali zuen bere kontakizuna. Bakoitzak biziakotik hitz egin zuen laukoteak.

Zabal mintzatu ziren emakumezkoen eta gizonezkoen espetxealdien arteko aldeez. "Ez lekua" deitu zioten kartzelari hizlariek, nabarmenduz "sistemaren ardurak urratzen dituen" gizartetik aldentzeko pentsatutako azpiegitura dela. Azpimarratu zuten, orokorrean,



'Emakumea\* eta kartzela' solasaldia egin zuten Xirimiri elkartearen. ASUNAK

espetxeak "gizonezkoentzat pentsatuta" daudela.

## Egoera, "jasanezina"

Pandemia hasi zenetik bi urte baino gehiago igaro badira ere, presoek eta senideek oraindik

neurri murriztaileak jasan behar dituztela salatu zuten Azken Ostiralean. "Denbora gehiegi seme-alabei, adineko senideei besarkadarik eman gabe. Egoera jasanezina da eta ez du inolako zentzurik".

Dagoeneko zentzurik ez duen egoera horrekin amaitzeko eskatu dute, eta espetxea ez den beste aukera batzuk "ausardiaz planteatzeko" garaia dela berretsi.

## Hilaren 7an, kontzentrazioa

Osasunaren Nazioarteko Eguna izango da hilaren 7a, osteguna eta kontzentrazioak egingo ditu Sare Herritarrak orduan, herriz herri, kartzelatan eta larriki gaixo dauden euskal presoak oroitzeko eta salbuespen neurriak kentzea eskatzeko. Lasarte-Oriako taldeak bat egin du ekimenarekin, eta iragarri anbulategian elkartuko direla, 19:00etan. Gaur-gaurkoz, hemeretzi dira eritasun larriak dituzten euskal presoak, tartean, Ibon Fernandez Iradi lasarteoriatarra: esklerosi anizkoitza dauka.



# Janaren eta edanaren topagune, berriro ere

Garagardo dastaketa eta barrikotea egin dituzte Extremadura Etxean eta Semblante Andaluz elkarteak, hurrenez hurren. Pandemiak denbora luzez galarazi dituen une eta ospakizunak berreskuratzen hasi dira herritarrak, baita elkarte gastronomikoetan ere

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Lasarte-Oriako elkarte gastronomikoak ere ari dira normaltasuna berreskuratzen. Martxoko azken asteburuan garagardo dastaketa eta barrikotea egin zituzten Extremadura Etxeak eta Semblante Andaluz elkarteak, giro ederrean. Janari goxo eta edari freskoen bueltan, COVID-19aren pandemiak denbora luzez galarazitako ospakizun eta bizipenak berreskuratu dituzte. TXINTXARRI ere gonbidatua izan zen jardueretara. Kazetari honen partez, mila esker.

"Bazen garaia atzera ere horrelako momentuak bizitzeko, irrikaz geunden". Hori izan zen Semblante Andaluzen egoitzan bildu ziren 60 bat pertsonen gehien errepikatu zuten esaldia, eta hitza, zalantzarik gabe, hau: "Txoootx!". 2019ko martxoan egin zuten barrikotea azkenekoz, eta pozarren zeuden hiru urte eta gero Atsobakar auzoko egoitza sagardotegi bilakatu zutelako gau batez.

Juan Navarro da orain lehendakari, duela gutxi hartu du kargua. Musikaria da ogibidez, eta ezin izan zuen 21:00etarako iritsi, kontzertua baitzeukan



Txotx oihuak etengabeak izan ziren Semblante Andaluzek egindako barrikotean. TXINTXARRI

Donostiako Kursaal aretoan. Dena den, Congostotik (Burgos) ekarritako odolkia dastatu ahal izan zuen. Jaki horrek ireki zuen menua, eta atzetik etorri ziren bakailao tortilla, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta eta postrea: gazta, irasagarra eta intxaurreak. Hori guztia, noski, Aburuza etxetik ekarritako sagardoarekin ezkondu zuten.

Congosto eta Lasarte-Oria senidetuta daude duela urte

batzuetatik, harreman oso berezia baitute bertako herritarrek eta Semblante Andaluzek. Horren erakusgarri, azken horiek afalostean jaso zuten oroigarria. Ondo bidean, Burgosko herri txiki horretara joango dira bisitan aurtun, ekainaren 25ean.

## Garagardo artisauekin, topa

Txotx egin zuten Semblante Andaluzekoek, eta topa Extremadura Etxekoek, garagardo artisauekin. Beerbaio enpresako langile eta elkarteko bazkide Alberto Calvo arduratu zen edari bakoitza aurkezteaz eta azalpenak emateaz. Adi-adi entzun zituzten Adarra kaleko egoitzan elkartu ziren 50 bat herritarrek.

Garagardo bakoitzarekin pintxo bana dastatu zuten: txistorraz betetako hostorea, oilasko hegalak, hirugiharra, urdaiazpiko errea eta txokolatzeko hostorea. Angel Barrerak eta Jose Luis Rubiok egin zituzten sukaldari lanak, eta gaur egun zuzendaritzan dauden kideak izan ziren zerbitzariak. Edalontziak bete, eta gora altxa zituzten, pandemia iritsi aurreko garaia berreskuratu izanagatik, giro ederrean.



Bost garagardo artisauek dastatu zituzten Extremadura Etxean. TXINTXARRI



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

## Mapak eta mugak

Olentzerok (edo Mari Domingik) munduko atlasa ekarri zuen gure etxera Gabonetan. Orduz geroztik, behin baino gehiagotan aritu gara irratian, telebistan edo Interneten aipatzen dituzten itsasoak, mendiak eta herrialdeak aurkitzen. Duela pare bat hilabete Ukraina beste kolore bat baino ez zen mapa horretan, baina dagoeneko Europako mapa politikoan hatz markak agerikoak dira herrialdearen gainean eta inguruan. Telebistan gerrako lehen irudiak botatzen hasi zirenean, mapara jotzen genuen Ukrainako hiri nagusiak kokatu, herrialde mugakideak ikusi, Euskal Herriatik zer distantziara dagoen kalkulatu eta herrialdeak ihes egin behar izan dutenek zein bidaia egin duten irudikatzen.

Bidaia hori trazatzerakoan, muga fisikoak ikusi ditugu: mendiak, ibaiak, itsasoak... Mapa fisikoan, bederen. Mapa politikoan, berriz, herrialdeak berak dira muga. Baina aldaera gehiago ere badira, eta duela pare bat aste zuzen-zuzenean egiaztatu ahal izan genuen. Irun eta Hendaia lotzen dituen Santiago zubian gendarmeen kontrola zegoen. Goiz arrunt batean bezala, jendearen joan-etorria lasaia zen pasabidean. Halako batean, ordea, bi lagunei alto eman zien poliziak. Bi gizon beltz ziren. Kasualitatea? Ehun mugimenduak ere esperimendu bat egin du (sareetan ikusgai dago): gazte zuri bat zubitik pasatzen eta gazte bera aurpegia beltzez margotuta zubia igarotzen. Asmatu duzue, bigarrena geratzen dute gendarmek. Beraz, azaleko kolorea ere bada beste muga bat, helmuga edota norabidea badiren bezalaxe. Azal kolorea hain da muga handia muga fisikoak zeharkatzen saiatzen baitira asko, zenbait kasutan bizia ere galduz.

Munduko atlaseko Afrikako mapan ez dago hatz markarik. Kolore askotako herrialdeak ageri dira, baina kolore bat gehiago izaten jarraitzen dute. Kolore horietatik, ordea, milaka lagun irteten ari dira gerra eta gatazketatik ihesi, eta horien bidariarik ez dugu trazatu oraindik. Horiek ere ezagutzen, trazatzen eta irudikatzen hasi beharko dugu, Europaz beste mapa gehiago ere badirelako.



TXINTXARRI

## Eguzkipean dantzatu dute

Udaberriari dantza eginez kaixo esan zioten hainbat herritarrek martxoaren 27an. Eguzkia lagun eta giro ederrean, meteorologikoa eta bestea, oinak mugitu zituzten 30 bat lagunek Okendo plazan. Plaza Dantza egitasmoko partaideak hilabetean behin ateratzen dira kalera, entseaturakoa erakustera. Terrazetako mahaien bueltan edo zutik zeudenen begiradapean, ederki pasa zuten denek.



# Jubenilak, Udaberri txapelketako irabazle

Intza Pilota Elkarteko Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilletak Hernani garaitu dute Udaberri txapelketako finalean. Jubenil 2. mailako bikoteak partida ederra jokatu du. Nahiz eta azken markagailua 22-6 izan, tanto bakoitza borrokatu behar izan dute herritarrek

## Txintxarri

Michelin kirol gunean Udaberri txapelketako bi final jokatu ziren martxoaren 26an. Lehenik, Kadete 3. mailako Lagunak-Murumendi; Elgoibarko Lagunak elkarteko bikoteak eraman zuen eguneko lehen saria. Jarraian, herritarrengan ikusmina sortzen zuen neurketa jokatu zen, Jubenil 2. mailakoa.

Intza eta Hernani izan ziren aurrez aurre. Etxeko bikoteak ez zekien zer nolako aurkariarekin aurkituko zen; Hernaniko jokalaria bat gaixo zegoenez, ligan ezin izan zuten elkarren aurka jokatu. Partida borrokatua eta luzea aurreikusten zuten herritarrek.

Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilleta jubenilek ongi hasi zuten partida. Hernaniko Alegria eta Descarga bikoteak, ordea, denbora behar izan zuten partidaren sartzeko eta egoeraz baliatuz, 4-1 aurreratu zen etxeko bikotea.

Ostean, bi bikoteen arteko borroka hasi zen eta amore emango ez zuela erakutsi zuen aurkariak. Tanto luze eta lehiatuen ostean, 4-3 hurbildu zen Hernani. Alabaina, Intzako pilotariak ez zuten hutsik egin. Pilotakadak ederki jokatu zituzten, ikusteko jokaldiak sortu eta pilota atzera bidali, indartsu.



Arteaga II.a, Urdanpilleta, Diaz de Gereñuk eta Urkia, sari banaketan. T. VALLES

Horri esker, etxeko bikotea tantoz tanto errenta handitzen joan zen.

Hernanik, partidaren erritmoa apurtzeko asmoz, lau atsedendaldi eskatu zituen, baita pilota motela erabili ere. Etxeko bikoteak, ordea, tinko eutsi zion jokatzeko moduari, eta gainera, aurkariaren eraso bakanei ederki erantzun zien. Intza nagusi zen, eta Hernanik ikusi zuen ezin zuela ezer egin.

22-6ko markagailuari esker, Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilletak Udaberri txapelketa eskuratu zuten.

Jose Felix Solano Intzako prestatzaileak nabarmendu duenez, "jubenilek jokaturako partida hoberena izan da. Diaz de Gereñuk sendo egon da eta jokaldi politak egin ditu. Hala

nola, bi dejada eder. Urdanpilletak ere atzean lan ederra egin du eta pilota seigarren koadrora eramatea lortu du. Ligan serio eta ongi jokatu dute eta saria merezi dute".

## Ezin aurrera egin

Bestalde, Arteaga II.a herritarrek Baiko enpresaren Promozio Mailako sailkatze neurketa jokatu zuten Alberdiren aurka, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan.

Aurkariak erritmo bizia ezarri zuen eta Arteagak ez zuen erasoei modu egokian erantzuten jakin. Herritarra egoerara moldatu zenerako, azpeitiarra nagusi zen. 7-22 amaitu zen partida. Beraz, Arteaga II.a sailkatze fasetik kanpo geratu da.

## Vithas Gaztedik garaipena eta Euskal Ligako lehen postua

Aizpea Racamonde (Vithas Gaztedi) eta Paola Vega (Hernani) herritarrek aurrez aurre izan dira Euskal Ligan

## Txintxarri

Euskal Ligako Emakumezkoen XV mailako azken jardunaldia jokatu zen martxoaren 26an eta 27an. Hernaniko Landaren, Hernani CRE eta Vithas Gaztedi taldeek partida garrantzitsua

jokatu zuten. Neurketa hasi baino lehen, sailkapeneko lehen postuetan ziren biak, eta Aizpea Racamonde (Vithas Gaztedi) zein Paola Vega (Hernani) herritarrek garaipena besterik ez zuten buruan.

Gogoz atera ziren zelaira. Hernaniren defentsa sendoa izan arren, bosgarren minutuan Vithas Gaztedi aurreratu zen markagailuan entsegua eta gauzatzea lortuz.

Bi taldeak gogor borrokatu ziren aurkariaren lerrora iristeko. Gasteizkoak bakarrik lortu zuen saria. Hemeretzigarren minutuan entsegua egin zuen eta atsedena baino lehen entsegua eta gauzatzea Racamonderen taldea 0-19ko emaitzarekin joan zen atsedendaldira.

## Sarmiento eta Lopez-Aranzabe bikotea, lehenen artean

LOKEko infantil B taldea zein banakako gimnastak Eskolarteko Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira

## Txintxarri

Eskolarteko A eta B mailako bigarren sailkatze saioa lehiatu zen martxoaren 27an, Azpeitian. Gipuzkoa osoko gimnastak bildu ziren, Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) kideak barne. Infantil B mailan taldean zein bakarka lehiatu ziren herritarrek eta emaitza ederrak lortu zituzten bakarkako saioetan.

Maialen Sarmientok pilotarekin egin zuen lan. Lehen postuan sailkatu zen eta sailkapen orokorreko buru ere bada.

Ane Lopezek, aldiz, hirugarren postua lortu zuen pilota lanarekin. Lopezek bikotea osatzen du Maialen Aranzaberekin batera; Aranzabek lehen jardunaldian egindako lanari batuz, bikotea sailkapen orokorreko bigarren postuan da.

Bestalde, taldeak uztaiarekin egin zuen lan bigarren saio



Sarmiento, pilotarekin. LOKE GIMNASTIKA

horretan. Bederatzigarren postua eskuratu zuen. Horrek sailkapen orokorreko zortzigarren tokian jartzen du taldea. Guztiek maiatzearen 14an antolatuko den Gipuzkoako txapelketarako txartela eskuratu dute. LOKEko prestatzaileak pozik daude gimnastek egindako lanarekin.

## Denboraldi berria hastear

Donostiako Hipodromoak zaldi lasterketa denboraldiari hasiera emango dio apirilaren 1ean, ostiralarekin. Zaldi lasterketan zaletuek hilabetean zehar lau hitzorduz gozatzeko aukera izango dute. 8an, 15ean eta 22an izango dira gainerako jardunaldiak. Beraz, ostiral goizetan lehiatuko dira lasterketak. Lehena 11:35ean hasiko da eta Alcar Leihoak, Mabel



TXINTXARRI

Moda, Bideo Lagunak, Ola Enmarcacion eta Buenetxea taberna sariak banatuko dituzte.



Racamonde (ezker) eta Vega (eskuin) herritarrek lehiatu ziren. A. VEGA

Hernanik ez zuen amore eman, eta erasora atera zen bigarren zatian. Defentsa lan ederra ere egin zuen Vegak zuzenduta, eta

Vithas Gaztedik ez zuen punturik egiterik izan. Hernanik, ordea, entsegua eta gauzatzea lortu zuen. Azken markagailua, 7-19 izan zen.

Emaitza horren ondorioz, Hernanik sailkapeneko hirugarren postuan amaitu du Liga. Vithasek, ordea, partida bat du jokatzeko. Universitario de Bilbaoren aurka jokatu du atzeratutako neurketa, hilaren 2an. Bilboko taldea bigarren postuan da. Aizpea Racamonderen taldeak bost puntuko errenta du. Beraz, partida gogorra aurreikusten du.



## ZORION AGURRAK



**Oier**  
Zorionak txapelidun!!  
Dagoeneko 12 urte!!  
Ondo pasa eta muxu  
pilo bat!! Aiora, aita eta  
ama.



**Xuar eta Unai**  
Zorionak Xuar eta Unai!!! Egun zoragarria pasatzea  
espero degu! Muxu erraldoi bat familiaren partetik!



**Ane**  
Zorionak maitia, asko  
maite zaitugu.  
Muxu asko....



**Aizpea**  
Zorionak Aizpea! Oso  
ondo pasa zure 10.  
urtebetzean! Ederki  
ospatuko dugu familia  
eta lagunekin. Asko  
maite zaitugu!!



**Rosa**  
Zorionak!! 50 muxu  
handi zuretzat! Asko  
gozatu zure  
urtebetzeaz eta merezi  
duzun bezala ospatuko  
dugu, denen artean.  
Besarkada handi bat,  
familiaren partetik.



**Jon**  
Zorionak potxoko! Ondo  
pasa zure egunean,  
muxu asko familiaren  
partetik.

## OHARRA

**La Esperanza bizilagun elkarteko batzarra apirilaren 3an**

La Esperanza bizilagun elkarteak kideei dei egiten die igandean, hilaren 3an elkarteko lokalean (Basaundi bailara, 8 baxua) egingo den urteko batzar orokorrera gertura daitezen. Ohiko bilera, goizeko 10:00etarako aurreikusitako dute, eta bigarren ez-ohikoa, berriz, goizeko 10:30ean izango da.

Elkarteko kideek jakinarazi dutenez, honako gai ordena jarraituko da: Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, kudeaketa balantzea, batzorde kide berrien izendapena, eta amaitzeko, erreguak edo galderak egiteko tarte bat ere izango dela aurreratu dute elkarteko kideek.

**22. Korrikako produktuak eta petoak salgai**

Apirilaren 8an, Korrika Lasarte-Oriatik igaroko da. Hori dela eta, Muntteri-AEK euskaltegiko kideek gogorarazten dute 22. Korrikan parte hartzeko petoak bost euroan erosi daitezkeela. Material gehiago ere (kamisetak, jertseak, biserak...) salgai dute.

Muntteri-AEK euskaltegira, Geltoki kalea 17 zenbakira joan behar dute produktu horietakoren bat edo petoak erosi nahi dituzten herritarrek.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 1	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 2	DE MIGUEL
IGANDEA, 3	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 4	DE ORUE
ASTEARTEA, 5	DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 6	LASA
OSTEGUNA, 7	GIL

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
M. Gomez Bravo:  
Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

**EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri  
**App Store edo Android Marketen**  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
webgunean eskuragarri.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA



**Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan.**  
Esperientzia handia dugu.  
**Esku onetan zaude!**

943-53 64 81 | 629 63 18 38  
Iñigo de Loiola, 2 behe. LASARTE-ORIA  
info@inmolasarte.com

## SALDU

Marina D'O r urbanizazio (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalea eta

egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

## LANA

**ESKARIA**  
Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zerbakia: 627 20 61 10.

Interna moduan lan egiteko prest nago. Harremanetarako zerbakia: 618 81 43 63.

Etxeke lana egin edota adineko pertsonak zainduko nituzke. Harremanetarako zerbakia: 611 27 27 72.

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketa lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak.

Harremanetarako zerbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adindua zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia: 643 23 92 51

Etxeke lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zerbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeke lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeke lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko

prest. Harremanetarako zerbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 634 27 81 98.

## BESTELAKOAK

**HEZKUNTZA**  
Eskola partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko saioak emateko eskaintzen dut nire burua, bainta Administrazioa edo Enpresa Zuzendaritza ikasten ari direnei ere. Edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko

prest. Harremanetarako zerbakia: 688 68 02 33.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra

ditut. Harremanetarako zerbakia, 697 45 97 96.

## SALEROSKETA

## SALDU

Eskiak eta helduentzako botak saltzen ditut. Interesa duenak dei dezala 605 70 57 89 zerbakira.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

## TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.  
12 €  
(BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eu  
ttakun.eu

## TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eu  
646 82 44 66

txintxarri

www.txintxarri.eus

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Liemii Rekondo  
eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide  
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,  
Egoitz Epelde, Jose Lanchas  
eta Iñigo Garcia.

## Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eu

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eu

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

## OSTIRALA 1

### LASARTE-ORIA 22. Korrika

Apirilaren 8an iritsiko da 22. Korrika Lasarte-Oriara. Nolako harrera egingo dion azalduko du Muntteri AEK euskaltegiak, aurkezpen galan. Manuel Lekuona, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Faouzi Boutaghrassa margolariaren lanak jarriko dituzte ikusgai hilaren 24ra arte. Sarrera doakoa da. Antonio Mercero gunea. 18:00etatik 21:00etara astegunetan eta 17:00etatik 19:00etara larunbatetan.



**LASARTE-ORIA 22. Korrika.** Euskal Herria alderik alde zeharkatzen ari den lasterketa hilaren 8an iritsiko da Lasarte-Oriara, ostiralarekin. Harrera beroa egite aldera, Muntteri AEK euskaltegiak egun osoko egitaraua prestatu du herriko hainbat eragilerekin batera: diana, Korrika Txikia, euskal jolasak, bertso jaialdia, batukada poteoa eta beste hainbat. Horrez gain, motorrak berotzeko jarduerak aurrera eramaten ari da, Korrika Kulturalaren barruan. Lasarte-Oria, apirilak 8, egun osoan zehar.

## IGANDEA 3

### LASARTE-ORIA Zinema

*Ainbo, Amazoniako gerlaria* pelikula proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute. Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*CODA* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTELEHENA 4

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Nerea Mendizabal adituak seme-alabekiko komunikazio ez bortitzari buruzko hitzaldia emango du, Treba Gurasoak egitasmoaren barruan. Oriarte Landaberri, 16:30ean.

### LASARTE-ORIA 22. Korrika

Landaberri eta Sasoea ikastetxeetako guraso elkarteek *Korrika umeen begietatik* erakusketa antolatu dute, hilaren 7ra arte. Ikasleek marraztu dute haien zehar lasterketa horrek zer esan nahi duen. Sarrera, doan. Antonio Mercero, 17:00-20:00.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

'Ainbo, Amazoniako gerlaria'  
Apirilak 1  
17:00.

'CODA'  
Apirilak 1  
19:30.

#### USURBIL

#### URBIL

'Morbisus'  
Apirilak 1  
16:40, 18:05, 19:20, 20:15, 22:00.  
Apirilak 2  
12:00, 16:40,

18:05, 19:20, 20:15, 21:20, 22:00.

Apirilak 3  
12:00, 16:40, 18:05, 19:20, 20:15, 21:20, 22:00.

'The Batman'  
Apirilak 1  
19:20, 21:10.

Apirilak 2  
12:10, 19:20, 21:10.

Apirilak 3  
12:10, 19:20, 21:10.

'The Bad Guys'  
Apirilak 1  
16:00, 17:00, 18:35.

Apirilak 2  
12:10, 16:00, 17:00, 18:35.

Apirilak 3  
12:10, 16:00, 17:00, 18:35.

'Sonic 2'  
Apirilak 1  
15:45, 16:45, 18:45, 19:45.

Apirilak 2  
12:10, 15:45, 16:45, 18:45, 19:45.

Apirilak 3  
12:10, 15:45, 16:45, 18:45, 19:45.

'Camera Café, la película'  
Apirilak 1  
15:50, 19:35.

Apirilak 2  
12:15, 15:50, 19:35.

Apirilak 3  
12:15, 15:50, 19:35.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

'Mainazidos'  
Apirilak 2  
19:30, 22:00.

Apirilak 3  
19:30.

Apirilak 4  
19:30, 22:00.

'The Bad Guys'  
Apirilak 2  
17:00.

Apirilak 3  
17:00.

## OSTIRALA 8

### LASARTE-ORIA 22. Korrika

Egun horretan iritsiko da 22. Korrika Lasarte-Oriara, Zubietatik, 07:11n. Egun horretarako egitaraua zabaldu prestatu du Muntteri AEK euskaltegiak, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean.

**06:30ean**, herria esnatuko dute txistulariek.

**07:11n**, 22. Korrika Lasarte-Orian barrena. Zubietatik etorriko da.

**11:00etan**, Korrika Txikia. Bi ordu

geroago koreografia egingo dute, Okendo plazan.

**13:30ean**, makarroi jana ikasleentzat, Okendon. Ondoren, bingo musikatua.

**17:00etan**, euskal jolasak Ostadar SKTren eskutik, Okendon.

**18:00etan**, barraren irekiera, gazte mugimenduaren eskutik, Okendon.

**19:00etan**, bertso jaialdia, Earra eskolako eskutik, Jalgin.

**19:30ean**, batu-poteoa, Dinbi Banda taldeak gidatuta.

**20:30ean**, afari merienda. Elkarte gastronomikoen prestatuko dute.

Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Ostadar SKT - Touring KE**  
Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.  
GORENGOEN MAILA, IGOERA

**Iiintxa SD - Ostadar SKT**  
Larunbata. 16:30. Bikuña, Legazpian.  
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA

**Ostadar SKT - Sanpedrotarra FE**  
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.  
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA

**Ostadar SKT - Beasain SD**  
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.  
JUBENILEN 1. MAILA, KOPA

**Ostadar SKT B - Orioko FT**  
Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.  
**Billabona KE - Ostadar SKT A**  
Igandea. 16:00. Arratzain, Villabonan.  
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA

**Eibar SAD - Ostadar SKT**  
Larunbata. 13:00. Unbe, Eibarren.  
KADETEEN 1. MAILA IGOERA

**Lgaun Onak CD - Texas Lasartearra CF**  
Larunbata. 12:00. Garmendipe, Azpeitian.  
KADETEEN 1. MAILA KOPA

**Ostadar SKT A - Aizkorri Goierri FT A**  
Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.

**Arrupe Chaminade CD C - Ostadar SKT B**  
Larunbata. 09:30. Felix Garin, Donostian.

**OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA**  
**Euskalduna SD - Ostadar SKT**  
Larunbata. 09:00. Ubitarte, Andoainen.

**INFANTILEN 1. M., TXAPELDUNEN F.**

**Zestoa KB - Texas Lasartearra**  
Larunbata. 09:00. Iraeta, Zestean.  
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA

**Ostadar SKT A - Usurbil Udarregi FT B**  
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

**Arrupe Chaminade CD B - Ostadar SKT B**  
Igandea. 10:00. Felix Garin, Donostian.

### ARETO FUTBOLA

#### 1. MAILA

**Egintza KE - Eguzki Arkupe Rehab.**  
Larunbata. 16:00. Olaederra kirol., Villabonan.

#### 2. MAILA

**Eguzki ISU Leihoak - Egintza KE**  
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.  
INFANTILEN MAILA

**Eguzki AF - Antiguoko KE C**  
Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOIA

#### SENIOR 1. MAILA

**CD Internacional - Ostadar SKT**  
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

#### SENIOR 2. MAILA

**Erroibide Urbycolan - Ostadar SKT**  
Larunbata. 16:00. Azken Portu, Irun.

**SENIOR 3. MAILA, KANPORAKETAK**

**Ostadar SKT - Elorri Aldapa**  
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.  
JUNIOR ERRENDIMENDU

**Ostadar SKT - TAKE Redline Mekanika**  
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.  
KADETE ERRENDIMENDU

**Zast Zarautz ZKE - Ostadar SKT**  
Igandea. 16:00. Aritzabalde kirol., Zarautzen.  
KADETE PARTAIDETZA

**Goierri Oxykor - Ostadar SKT**  
Igandea. 10:45. Aldiri kirol., Urretxun.

### BOLEBOLA

#### EUSKAL LIGA

**CD Ibararte - Ostadar SKT**  
Igandea. 11:30. Zubiriko kirol., Nafarroan.  
JUBENIL MAILA, AZKEN FASEA

**Fortuna - Ostadar SKT**  
Larunbata. 15:30. Pio Baroja kirol., Donostian.

### KADETE MAILA

**Ostadar SKT - Lizardi Bi**  
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

### ERRUGBIA

#### OHOREZKO B MAILA

**Gesalaga Okelan Zarautz RT - Clinica Colina Palencia RC**  
Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.

### PILOTA

#### LAU ETA ERDI, SENIORRA 1. MAILA

**Intza KE - Hernani**  
Larunbata. 16:15 (2. partida). Michelin Kirol gunea.

#### LAU ETA ERDI, JUBENILA 2. MAILA

**Intza KE - Zazpi Itturri**  
Larunbata. 16:15 (3. partida). Michelin pilotalekuan.

**Intza KE - Oiarpe**  
Larunbata. 16:15 (4. partida). Michelin pilotalekuan.

#### LAU ETA ERDI, KADETEA 2. MAILA

**Intza KE - Tolosa**  
Larunbata. 16:15 (Lehen partida). Michelin pilotalekuan.

### ZALDI LASTERKETAK

#### 1. JARDUNALDIA

**2022 urteko zaldi lasterketen denboraldia hasiko da. Alcar Leihoak,**

**Mabel Moda, Bideo Lagunak, Ola Enmarcación eta Buenexea taberna sariak lehiatuko dira.**

Ostirala. 11:35. Hipodromoa, Donostian.

### IGERIKETA

#### IDM BERLIN

**Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Borrezo igerilaria 36. IDM Berlin proban lehiatuko da.**

Ostegunetik igandera. Berlin, Alemanian.

### XAKEA

#### 3. MAILA

**Lasarte-Oriako Taula Xake Klubak taldekako Gipuzkoako Txapelketako jardunaldia du. Santikutz C izango du aukari.**

Larunbata.

### ATLETISMOA

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

**Ostadar Atletismo Eskolako kideek Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia lehiatuko dute.**  
Igandea. 10:00. Unbe, Eibarren.

### LASTERKETA

**DONOSTIAKO MARATOI ERDIA**

**Hainbat herritarrek Donostiako Maratoi erdian eta 10 km. proban parte hartuko dute.**  
Igandea. 10:00. Donostian.





**ORIANTE**  
Institutua

2022-2023 IKASTURTEA

Izen ematea  
martxoaren 28tik  
apirilaren 8ra

- ✓ Zientziak eta Teknologia
- ✓ Giza eta Gizarte Zientziak

Eskaera online zein ikastetxean egin daiteke.



info@oriarte.eus

Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA |

TEL.: 943-89 94 94 - 943-89 94 92

www.oriarte.eus

Zenbat dakizu **korrika**z?

**10 GALDERA** ausartzen zara? **sariak**

denak asmatzen dituztenen artean  
**KORRIKA produktuak**  
(bi sorta)

parte-hartzaile guztien artean  
**Avenida tabernako**  
**patata-tortilla**

apirilaren 1etik 10era

www.txintxarri.eus



**anima zaitez!**

txintxarri

**KORRIKA-ko zenbaki berezia**  
**apirilaren 8an**

HITZ EKIN



Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin harremanetan!

Eskatu tarifak: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) | 646 82 44 66